



errateko ohitura dago : errait-
teko usata dugu.

hodei : laino, hedoi...

basoa : oihana.

madarikazio : juramentu.

zantar : itsusi.

Gauaz, ilargian aurpegi bat ageri dela (zuri beltzuneen artean) errateko ohitura dago baina Ingelateran untxi bat agertzen dela erraiten dute eta Alemanian, berriz, neskatala polit bat. Zuek zer ikusi izan duzue?

Euskal ipuinetan, ilargian gizon bat agertzen da, lepoan zakua eta ondoan txakurra dituelarik. Begira iezaiozue ongi.

Gizon hori lehenago lapur bat izan omen zen. Ilargirik ez zen gau batez, auzoaren basora sartu omen zen eta egurrak kentzen hasi; zeruan ilargirik ez zegoen eta jabeak ez zuen ikusi. Halako batean, ilargiak, bere begi handia hodei artetik atera eta, argiz bete zuen basoa. Gizonak, madarikazio batzuk bota omen zizkion ilargiari, bere lapurreta argitan ezartzen ziolako.

Ilargiari, nonbait, ez zitzaizkion batere gustatu hitz zantar haiek, eta, halako batean, dzast! eskua lurreraino luzatu, gizon

Ilargiko gizona

15 hura hartu eta gora eramane
zuen betiko, aldean zeukan
txakurra eta guzia.

20 Geroztik, hantxe omen
dago, lapurretarik ez dela
egin behar erranez.

*Irakur 3, Gero, ediciones
Mensajero.*



❶ ULERMEN GALDEAK

- Zein dira ilargian ikus daitezkeen irudiak?
- Zergatik madarikatu zuen lapurrak ilargia?
- Zergatik gaztigatu zuen ilargiak lapurra?

❷ HIZTEGIA

- ▶ Bost hitz hauetatik bik erranahi bera dute. Ingura itzazu.
hodeia basoa pentzea oihana zerua

❸ BERRIZ IRAKUR

- ▶ Marra ezazu testuan ez den erranaldia.
 - Ilargiari lapurrak ukabila erakutsi zion.
 - Gizon hori lehenago lapur izan omen zen.
 - Halako batean, ilargiak, bere begi handia hodei artetik atera eta, argiz bete zuen basoa.
- ▶ "lapur" erroa duten testuko hitz guziak idatz.
- ▶ Zergatik lapurrak ilargiari madarikazioak bota zizkion? Hiru erantzun hauetatik egokiena asma ezazu.
 - Bere lapurreta argitan ezartzen ziolako.
 - Jabeak ikusteko beldurrez.
 - Zeruan ilargirik ez zegoelako.
- ▶ Ilargi beteari so zaudelarik, zer ikusten duzu? Marraz ezazu.